

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Mari Faus Iurrita

*Ordizia,
Gipuzkoa
(1934)*

Aurkibidea



Biografia



Filipinas kaleko Loretoki etxean jaio zen, lau anai-arrebaren artean gazteena. Ama ordiziarra zuen, baina aita Oñatitik etorritakoa zen. Aitak eta amonak Intxausti Berri baserriari erositako lur sailetan eraiki zuten Loretoki etxea. Aitaren aita Valenciatik Gasteizera etorri eta bertan ezagutu zuen oñatiar batekin Oñatira ezkondu zen. Joxe Mariren osaba batek Oñatiko Kale Barriako botika erosi zuen, eta bertan bizi izan zen hil arte. Amak irakatsi zion Joxe Mariri irakurtzen eta idazten, 'Xabiartxo' liburuarekin. Ordiziako mojetan eta eskola publikoan ikasi ondoren, Donostiara joan zen batxilergoa egitera, marianistek Aldapeta kalean zuten eskolan, barneko ikasle bezala. Gero kimika karrera ikasi zuen Zaragozako unibertsitatean. Bertan Mikel Laboa izan zuen ikaskide. Familiaren "Laboratorios Faus"en lan egin zuen, baina gehienbat Aranzadi Zientzia Elkartean jardun du lanean, hasieran Ornitologia saileko eta geroago Ornodun saileko ardura nagusiarekin. Aranzadi hegaztiei eraztunak ipintzen noiz eta nola hasi zen eta zernolako emaitzak lortu zituzten Espainian aitzindaria izan zen jarduera horrekin, azaltzen du. Ataungo Aldakio baserriko Ramoni Goikoetxearekin ezkondu zen eta hiru alaba izan zituzten.

Zintak

ORD-039

- **Proiektua:** Ordiziako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2011-03-09
- **Iraupena:** 60 min

- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ORD-040

- **Proiektua:** Ordiziako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2011-03-09
- **Iraupena:** 33 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Aitona valentziarra Oñatira ezkondu

- **Erref:** ORD-039/002
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:01:09. **Bukatu:** 00:03:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Joxe Mariren aitona zena Valentziatik Gasteizera etorri zen, eta bertan ezagutu zuen oñatiar batekin Oñatira ezkondu zen. Aita Oñatin jaio eta gaztetan Frantziara joan zen. Handik Ingalaterrara joan eta, Ekonomia ikasketak bukatu ondoren, Ordiziara etorri zen. Ordizian ezkondu eta bizi izan zen harrezkero. Ordiziako "CAF, Construcción y Auxiliar de Ferrocarriles" lantegian jardun zuen lanean.

2. Aita Oñatitik Ordiziara, eta osaba Ordiziatik Oñatira

- **Erref:** ORD-039/003
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:03:39. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikuak

Laburpena:

Joxe Mari sarritan joaten zen Oñatira. Bere amaren anaia batek Oñatiko botika bat erosi ondoren, bertako botikaria izan zen. Zurutuza botikariari erosi zion botika, eta berak erretiroa hartu zuenean Miren Galarza oñatiarrari saldu zion. Aita Oñatitik Ordiziara joan zen bizi izatera, eta osabak berriz, alderantziz egin zuen.

3. Loretoki etxean jaio zen Joxe Mari

- **Erref:** ORD-039/004

- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

<p>Aita Oñate; atiko plazako Garaikoetxea gozotegiaren gaineko solairuan jaioa zen, eta hara joaten zen Joxe Mari senideei bisitan. Ordiziako Filipinas kaleko mutur batean aita eta ama 1926an eraikitako etxe batean jaio zen Joxe Mari, Loreto izeneko etxean, hain zuzen ere. Etxearen aurrealdean kale-baserri bi zeuden. Intxausti Berri baserriari erositako lur sailean eraiki zuten Loreto etxea.</p>

4. Aita landa eta baratze zalea

- **Erref:** ORD-039/006
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:10:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Aita baratze zalea zen, eta landan bizitzeko gogoia Ingalaterratik ekarri omen zuen. Herriaren erditik urruti eta argiztapenik gabeko parajeetan eraiki zuen etxea.

5. Kanean euskara gutxi erabiltzen zen

- **Erref:** ORD-039/008
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:10:44. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Eskolan hasi aurretik, ama Xabierto euskal liburuarekin irakatsi zion irakurtzen eta idazten. Sei urterekin mojen eskolan hasi zen. Lehen jaunartzea egin eta gero herriko eskolan Hidalgo maisuarekin ikasi zuen harik eta batxilergoa egitera Donostiara joan zen arte. Garai hartan etxean euskaraz mintzatzen ziren, baina kanean euskaraz oso gutxi egiten zela dio Joxe Mari. Eskolan zer esanik ez, dena erdaraz zen.</p>

6. Etxean ez, baina Donostian gosea ezagutu zuen

- **Erref:** ORD-039/010
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:15:57. **Bukatu:** 00:18:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

Joxe Mari gaztea zenean garai ilunak bizi izan zituztela dio. Jendea beldurrez bizi zela zeritzon. Etxean ez zuten goserik pasatu, baina Donostian barneko ikasle egon zenean, errazionamenduko txartela galdu eta egun batzuk ogirik jan gabe egon behar izan zuen.

7. Txokolatea baino ogia nahiago

- **Erref:** ORD-039/011
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:18:35. **Bukatu:** 00:19:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

Donostiako marianistetatik amari idatzitako karta bat gogoan du: amak bidalitako txokolatea eskertzen dio, baina ogia nahiago izango zuela adieraziz. Bederatzi urte zituen orduan.

8. Ordizian euskara gutxi

- **Erref:** ORD-039/013
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:21:27. **Bukatu:** 00:24:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Lehen jaunartzea marinel jantziarekin egiten zuten mutikoek; egun horretan gaixotu egin zenez, igande normal batean egin behar izan zuen Joxe Marik. Dotrina erdaraz ikasi zuen mojetan. Belaunaldi zaharragoetakoak euren artean euskaraz mintzatzen ziren, baina Joxe Marirenean euskara oso gutxi erabiltzen omen zuten garai haietan.</p>

9. Asteazkenetako feria zaharra

- **Erref:** ORD-039/014
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:24:07. **Bukatu:** 00:26:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

<p>XV. mendean hasi ziren asteazkenetako feria ospatzen Ordizian, Juana la

Loca Gaztelako erreginaren baimenarekin. Joxe Mari gaztea zenean, Ordiziako inguruetak herrietan asteko jaiegun nagusia asteazkena zen. Dotore jantzi eta Ordiziako feriara egun guztirako joaten ziren baserritarrak: goizean barazki eta jatekoen feria izaten zen, eta arratsaldean ganaduena. Igandetan ere dotore janzten ziren baserritarrak, baina meza entzuteko besterik ez.</p>

10. Mutikotako jolasak

- **Erref:** ORD-039/015
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:26:08. **Bukatu:** 00:30:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Mutikotan, futbolaz edo pilotaz gain, oinetako takoi zaharrekin "a garchas" jolasten ziren; pospolo-kaxa azalekin, berriz, ardogika. Kaniketan ere jolasten zuten. Txirunba jokoan nola jolasten zen azaltzen du.

11. Marianisten zentsura

- **Erref:** ORD-039/018
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:34:54. **Bukatu:** 00:36:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

Etiket ikastetxera bidaltzen zituzten paketeak maisuek gordetzen zituzten, eta euren nahi zutenaren arabera, ikasleei ematen zieten paketeen zetorrena. Barneko ikasleak astean behin etxera gutuna idaztera behartuta zeuden. Maisuak gutunok irakurri eta gero bidaltzen zituzten.

12. Barneko ikasleen bizimodu gogorra

- **Erref:** ORD-039/019
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:36:22. **Bukatu:** 00:38:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Aisia » Kirola » Futbola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

<p>Donostiako ikastetxean oso gutxi irteten ziren kalera. Urriaren 1ean sartu eta Santo Tomas egunera arte ez ziren etxera bueltatzen. Irteera bakarra Realak Donostian jokatzen zuenean partida ikustera joatea izaten zen. 13-14 urterekin Amarako errautsezko futbol zelaira joaten ziren ikastetxe arteko lehiaketetara. Hondartzara ez, baina behin edo behin portua ikustera eraman zituzten barneko ikasle denak.</p>

13. Batxilergoaren errebalida Valladoliden

- **Erref:** ORD-039/020
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:38:52. **Bukatu:** 00:41:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Barneko ikasleak 60 bat izango ziren, Gipuzkoako herrietatik etorritakoak gehienak. Bederatzitik 17 urtera arte ikasi zuen Donostian. Valladoliden errebalida azterketa pasatu eta Zaragozara joan zen ikastera. Errebalida pasatzeko idatzizko eta ahozko azterketak gainditu behar ziren. Udan hiru hilabeteko oporrak izaten zituzten.</p>

14. Mendi eta txori zalea

- **Erref:** ORD-039/021
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:41:24. **Bukatu:** 00:43:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Aisia » Mendi eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Eskolako oporraldietan jolasean ematen zuen denbora. Mendira joatea eta txorien atzetik ibiltzea ere gustukoa zuen. Txoriekin hasi zenean ehiztaria zen, baina laster ehiza utzi eta txoriei buruz ikasten hasi zen. 22 urterekin Aranzadi Zientzia Elkarteko bazkide egin zen.

15. Tiragomadun txorizaleak

- **Erref:** ORD-039/022
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:43:41. **Bukatu:** 00:45:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Aisia » Mendi eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Bazuen lagun bat oso txorizalea zena. Biak poltsikoan tiragomarekin ibiltzen ziren. Batzuetan hiltzen zituzten txoriak etxean jaten zituzten. Justo izeneko zapataria hasi zen gomak saltzen, eta larru pusketa batekin eta "manilla" batekin egiten zituzten tiragomak.

16. Aguazilen bandoak

- **Erref:** ORD-039/023
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:45:13. **Bukatu:** 00:48:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Tiragomak debekatuta omen zeuden; aguazilak mutikoei zergatik kentzen zizkien azaltzen du. Errazionamenduko gauzak herriko dendatara iristen zirenean, aguazilak bandoa ematen zuen herrian zehar.

17. Dantzak eta erromeriak

- **Erref:** ORD-039/024
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:48:12. **Bukatu:** 00:50:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Igandero egoten zen dantza herriko plazan. Udan ostegun gauetan ere egoten zen dantza, "Arboleda"n. Larraitzen eta Ojangurengo hariztian ere egoten ziren erromeriak. Inguruko herrietako jaietara joaten ziren. Gertukoetara oinez edo bizikletaz, baina Legorreta eta urrutikoetara trenez joaten ziren.

18. Zaragozan kimikako ikasketak

- **Erref:** ORD-039/026
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:51:24. **Bukatu:** 00:53:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Zaragozako unibertsitatara joan zen kimikako ikasketak egitera. Bost urteko ikasketak izan ziren, baina gaixoaldi bat eta soldadutza zirela medio, zortzi urte hartu zion karrerak.</p>

19. Mikel Laboa ikaskide

- **Erref:** ORD-039/029
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:53:21. **Bukatu:** 00:56:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Ikasle-egoitza, ostatu edota lagun euskaldunekin pisuetan bizi izan zen Zaragozan. Mikel Laboa ikaskidearen oso laguna izan zen bertan. Kanta

zaharren bila etorri omen zen Laboa Joxe Mariren amarengana. Zaragozan kantu-parranda asko egiten zituzten Laboa eta bere gitarrarekin. Euskaldunen artean koro bat eratu zuten, eta Santa Ageda bezperan Pilarreko Katedralean hasita errondan abesten zuten. Katedralean barruan abesteko arazoak izan zituzten artzapezpikuarekin.</p>

20. Kimikako ikasketak

- **Erref:** ORD-040/001
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Natura » Meteorologia
- Natura » Fauna

Laburpena:

Osaba botikaria eta anaia kimikoa zituenez, berak ere kimika aukeratu zuen ikasteko. Ikasketak bukatu zituen, baina kimika munduan ez zuen jardun luzerik izan. Aranzadin hasi zen eta kimika alde batera geratu zitzaion.

21. Etxean "Laboratorios Faus" laborategia

- **Erref:** ORD-040/002
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:01:23. **Bukatu:** 00:03:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Etxean "Laboratorios Faus" kudeatzen zuten, eta hazteriarren aurkako pomada egiten zuten bertan, besteak beste. Anaia kimikoak Eibarren egiten zuen lan, argizari galduko galdaketan ("microfusión"). Etxeko laborategia osaba botikariak eta aitak jarri zuten, eta aldi motz batean Joxe Marik ere bertan jardun zuen.

22. Ornitologiatik Ornodunen sailera

- **Erref:** ORD-040/003
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:03:52. **Bukatu:** 00:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Aranzadin hasieran Ornitologia saila eraman zuen, baina geroago Ornodunen saila bihurtu zen, eta Joxe Marik izan zuen haren ardura 25 urtez.

23. Hegaztiei eraztunak ipintzen

- **Erref:** ORD-040/004
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:06:35. **Bukatu:** 00:07:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Aranzadi hegaztiei eratzunak ipintzen aitzindaria izan zen Espainiako estatuan. Frantziako hegazti eraztuntze-estazio ofizial batekin harremanetan jarri eta Aranzadiren helbidea zuten eratzunak ipintzen hasi ziren.

24. Doñanako hegaztiei eratzunak ipintzen

- **Erref:** ORD-040/005
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:08:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Doñanako biologia-estazioaren zuzendaria zen Tono Valverde Aranzadira etorri zitzaien eratzun bila. Harrezkero, urtero joaten ziren Aranzadikoak Doñanako hegaztiei eratzunak ipintzera. Hondarribian sare berezi batekin harrapatutako paseko txoriei ipintzen zizkieten eratzunak.

25. Sareekin txoriak harrapatzen

- **Erref:** ORD-040/006
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:08:47. **Bukatu:** 00:10:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Japoniar sare berezi batzuk ere erabiltzen zituzten txoriak harrapatzeko. Sareak txori motaren arabera kokatzen ziren; etxeko ortuan ere jartzen zituen Joxe Marik. Txori txikiak ere izan daitezke pasekoak, eta edozein lekutan geratu. Batzuk bertan geratuko dira eta beste batzuk Afrikara bidean egon daitezke. Iberiar penintsulan txori asko geratzen da negua pasatzera, udaberrian ipar aldera bueltatzeko.

26. Sorbeltzak Afrikara

- **Erref:** ORD-040/007
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:10:22. **Bukatu:** 00:12:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Sorbeltzak abuztuan hasten dira Euskal Herritik hego alderantz joaten. Eguna mozten joateak, hotzak eta janari gabeziak behartzen dituzte txoriak bizilekuz aldatzera.

27. Usoak eta oilagorrak

- **Erref:** ORD-040/008
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:12:37. **Bukatu:** 00:15:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Ipar aldetik honantz jaisten diren txoriak gehiago dira, hemendik hego aldera doazenak baino. Usoa eta oilagorra dira ipar aldetik etortzen diren txori ezagunenetakoak. Garai batean, usoa Euskal Herrian geratzen zen negua igarotzeko.

28. Birigarro eta zozoak

- **Erref:** ORD-040/009
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:15:12. **Bukatu:** 00:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Birigarro eta zozo asko etortzen dira neguan Alemania eta Suediatik Euskal Herrira, eta bertakoekin nahasten dira; hurrengo urtean euren sorlekuetara itzuliko dira. Txori mota batzuek denek egiten dute alde elkarrekin, baina beste mota batzuetakoek ez dute horrela egiten.

29. Euskal putreak Marokon

- **Erref:** ORD-040/010
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:20:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Joxe Marik azaltzen du zergatik ez duten elkarrekin alde egiten txori mota batzuetako banako guztiek. Aranzadik eraztundutako putreak Andaluzia eta Marokon azaldu ziren. Ordura arte putreak hegazti sedentarioak zirelakoan zeuden. Doñanan eraztundutako koartzatxoak Hego Ameriketara azaldu ziren.

30. Txio txoria Donostiatik Parisera

- **Erref:** ORD-040/012
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:21:34. **Bukatu:** 00:23:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Txio motako sei gramoko txori bati Donostian eraztuna ipini, eta hurrengo egunean Parisen kontrolatu zuten.

31. Ia txori mota guztiak eraztundu dituzte

- **Erref:** ORD-040/013
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:23:56. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Hegazti migratzaileak ondo ezagutzen dituzte Aranzadin. Urrian eraztundutakoak hegoaldean azalduko dira, eta udaberrian eraztundutakoek, berriz, iparralderantz joko dute. Ia txori mota guztiak eraztundu dituzte lan ezberdinetarako.

32. Europako eraztuntze-estazioak

- **Erref:** ORD-040/014
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:28:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Gaur egun Europa osoko eraztuntze-estazioekin harremanetan daude Aranzadikoak. Gaur eguneko Europako hegazti-eraztuntze mundua Holandan dago zentralizatuta.

33. EAEko Ornodunen Atlasa

- **Erref:** ORD-040/015
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:28:13. **Bukatu:** 00:31:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

EAEko Ornodunen Atlasa egin zuen Aranzadik: hiru probintzietako lurrak 10 kilometro karratuka zatitu zituzten eta zati bakoitzean bizi diren ornodunen zerrendak egin zituzten. Txorien saila Joxe Mariren ardura izan zen. Nafarroako Ornodunen Atlasa Joxe Mariren lagun batek egin zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com